

Agur honekin, **2008ko apirilaren 12 eta 13an Portugaleten** dagoen EHU-ko Eskola Nautikoan egingo diren Jardunaldietan parte hartzera gonbidatu nahiz zaituztegu Euskal Herriko Erakunde Feministen Koordinadoratik.

Eskola, bakoitzaren ibilbide feministatik batera bidaiatzeko espazioa dugu. Sartu zaitezte eta guztia azaltzen zaizue bertan.

13 urte pasa berri dira III. Euskadiko Jardunaldi Feministak -Mugarik Gabe emakumeontzat- ospatu genituenetik aurreko mendean. Gogoratzen al zarete? Zuetako asko seguruenez ez. Bada ordua, beraz, laugarrenak egin eta gure elkargune zein eztabaidak berritzeko.

Gure Jardunaldien errepasso laburra egin dezagun. **I. Euskadiko Jardunaldi Feministak 1977ko** abenduan egin genituen, bertatik 3000 emakume inguru pasa ziren; zifra esanguratsua hasiberriak zirela kontuan hartuta. Mugimendu feminista jaioberria momentuko gairik berritzaileen inguruan eztabaidatzeko bildu zen: antolakuntza, patriarkatua, sexualitatea eta hezkuntza.

1984ko martxoan gure proiektuak komunean jarri, eztabaidatu, elkartrukatu, aztertu; ekimen bateratuak proposatzeko, geure esperientziak kontatzeko... nahikoa eskarmentu eta borroka bilduak genituen. Gaiak, berriz ere, feminismoaren oholtzan zirenak: hezkuntza, sexualitatea, abortua, erasoak eta mugimendu feminista.

Hamar urte pasa ziren hurrengo jardunaldiak arte, **1994ko III. Jardunaldi Feministak**. Eguneroko feministako elementu berriek hauen inguruko eztabaidei espazio zabala eskaintzera eramán gintuzten: antolakuntza, krisia eta organizazio ereduak, beste erakundeekin harremanak... Hala ere, honek ez zuen suposatuta kutsu teorikodun eta esku hartze gaiak alde batera uztea.

Euskal Herrian (batez ere hegoaldeko lau herrialdeetan) buruturiko hiru Jardunaldiek badute elementu komunik, aisiari eskainitako denbora. Beti izan dugu espazio bat musika, parranda, dibertsioa eta algararentzat.

Horrela gure tradizioen onenari heldu eta elementu berriak barneratuz, IV. Jardunaldietara abiatzen gara zuek guztiokin. Izena ematen, ponentziak idazten, bidaia antolatu eta lagunei kontatzen hasi zaitezke. Orri honetan hau guztiaz hitz egingo dizuegu.

APIRILAK 12, Larunbata	
09:00 - 09:30	AKREDITAZIOA
09.30 - 11:00	JARDUNALDIEN AURKEZPENA: Ardatzen kokapena, metodologia, ...
11:00 - 14:00	LEHENENGO ARDATZA EMAKUMEOK HERRIAN ETA MUNDUAN: zaintza, prekarietatea, interkulturalitatea, parte hartze sozio-politikoak,..
14:00 - 15:30	Bazkaria
15:30 - 17:00	BIGARREN ARDATZA: "Emakumeok indarkeri sexistari aurre eginez: prebentzioa, legeak, erantzuna,.."
17.00 - 17:30	Atsedernaldia
17.30 - 19:00	BIGARREN ARDATZA: "Emakumeok indarkeri sexistari aurre eginez: prebentzioa, legeak, erantzuna,.."
20:00	MANIFESTAZIOA BILBON
22:00	Festa Kukutzan (Rekalde Auzoan)
APIRILAK 13, Igandea	
09:30 - 12:00	HIRUGARREN ARDATZA: "Emakumeok, gure identitatea eta gure gorputz intersumituak: sexualitateak, queer teoria, prostituzioa, eskubide erreproduktiboak: abortoa, eskubide sexualak, lesbianismoa,.."
12:00 - 12:15	Atsedernaldia
12:15 - 14:00	ONDORIOAK ETA BUKAERA EKITALDIA.
14:30	Bazkaria

EUSKAL HERRIKO IV. JARDUNALDI FEMINISTAKO ♀

Apirilak 12 eta 13 Portugaleteko Nautikako EHU-ko Fakultatean

FEMINISTOK erabakitetarako BORROKAN!!!



FEMINISTOK eraldaketarako BÖRRÖKAN!!

manifestazioa

PLAZA ZIRKULARREAN, 20H ETAN
APIRILAREN 12AN

EUSKAL HERRIKO IV.
JARDUNALDI FEMINISTAK ♀

[HTTP://WWW.JARDUNALDIFEMINISTAK.ORG/](http://www.jardunaldifeministak.org/)

